



EBAZPENA, 2025eko martxoaren 3koa Hezkuntza saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendariarena. Horren bidez zehazten dira Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko eta Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, bai eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetako zereginak ikasteko geletan ere, hutsik dauden Maisu-maistren kidegoko behin-behineko lanpostuak.

Hezkuntza sailburuaren 2024ko urriaren 25eko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren menpeko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen artean estatu mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, bigarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2024ko azaroaren 4a).

Ondorioz, hau

XEDATU DUT:

Lehen artikulua.- Argitarara ematea Ebazpen honen I. eranskinean Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetan hutsik dauden ohiko behin-behineko lanpostuak, Maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketarako deialdiaren bidez betetzeko.

Bigarren artikulua.- Argitarara ematea Ebazpen honen II. wranskinean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetako zereginak ikasteko geletako ikastetxeetan hutsik dauden ohiko behin-behineko lanpostuak, Maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketarako deialdiaren bidez betetzeko.

Hirugarren artikulua.- Argitarara ematea Ebazpen honen III. Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako zereginak ikasteko geletako ikastetxeetan hutsik dauden ohiko behin-behineko lanpostuak, Maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketarako deialdiaren bidez betetzeko.

Laugarren artikulua.- Interesatuek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute behin-behineko lanpostu hutsen zerrenda horren kontra, 5 laneguneko epean, Hezkuntza sailaren web orrian argitarara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

**UNAI NIETO MARIJUAN
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2025eko martxoaren 3a